

‘Tenpraren guarpena’ dokumentala estreinatuko dute asteburuan

Egilea Erredakzioa | 25 ekaina, 2021

Idoia Lahidalga eibartarrak eta Oihane Puertas lasartearrak Erronkaribarko emakumeen bizipenak jasotzen dituen *Tenpraren guarpena* dokumentala osatu dute Mondragon Unibertsitatean egindako Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasketen gradu amaierako lan gisa. Filma asteburuan estreinatuko dute, eta hainbat saio lotu dituzte jada.



Erronkaribarko XIX. mendeko emakumeen errealitatea ulertzen laguntzeko asmoz, bertako lau emakumeren testigantzen inguruan ardazu dute ikus-entzunezkoa Lahidalga eta Puertas gazteek. Belaunaldi ezberdinetako andrazkoak dira, eta Zuberora espartin fabriketan lan egitera joaten ziren 11-18 urte arteko enaren bizipenetatik aldentuz, eskualdean, neska gazterik eta gizonik gabe, geratzen ziren emakumezkoengan jarri dute arreta. Egileek **BERRIA egunkarian egindako elkarrizketan** aditzera eman dutenez, “guztia aurrera atera dutenak emakumeak izan dira, baita hizkuntza ere, erronkariera”.

Hain zuzen, erronkarierazko *Guarpenari etzau akabatan trenpa (Oroimenari ez zaio amaitzen denbora)* esamoldea erabili dute egindako lana izendatzeko, *Trenparen guarpena (Denboraren oroimena)*. Mondragon Unibertsitatean egin duten Ikus-entzunezko Komunikazio Graduaren amaierako lan gisa osatu dute, eta iragan ekainaren 12an aurkeztu zuten HUHEZiko tribunalaren aurrean.

Bihar, ekainak 26, Iزابako Memoriaren Etxean egingo dute dokumentalaren estreinaldia 19:00etan, eta jende asko bertaratuko balitz, bi emanaldi egiteko aukera aurreikusi dute. Horrez gain, igandean, Burgiko Udaletxean izango da ikusgai lana, 19:00etan, eta uztailaren 10ean, larunbata, Erronkaribarko Etxean, 18:30ean.

Esteka: <https://www.zinea.eus/2021/06/25/tenpraren-guarpena-estreinaldia/>